

2012/09/25(e)ko saioa

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Jaurlaritzak VISESAren kapitala handitzea onartu du

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Industria sailak Kultura sailari laga dizkio Zorrotzaurreko lursailak Teknikaren Museo eraikitzeko

Jaurlaritzak onartu egin du 6 milioiko diru laguntza jasotzeko eskubidea kentzea Habidite empresari

Eusko Jaurlaritzak 150.000tik gora euro jarriko ditu Bernedoko instalakuntza berria egiketo

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Gobernuak 1,5 milioi euro baliatuko ditu gizarte ekonomia sustatzeko

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Nekazari ekoizleen elkarte eta horien batasunerako 300.000 euroko dirulaguntza deia egin da

Jardueren ingurumen kudeaketa elektroniko zerbitzuaren erabilera arautzen duen Dekretua onartu da

KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzak 10 milioi euroko diru-laguntza emango die euskaltegi publikoei

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Jaurlaritzak VISESAren kapitala handitzea onartu du

Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A./ Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, SA sozietate publikoaren kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena eman eta sozietatearen estatutuak onartzen dituena

Jaurlaritzaren Kontseiluak dekretua onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari "Sociedad Pública Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A./ Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, SA (VISESA) sozietatearen kapital-gehikuntzan akzioak harpidetu ditzan, eta haren estatutuak alda ditzan.

Gaur egun, VISESAk 23 milioi euroko kapitala dauka; kapital horren % 67,01 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarena da; % 28,69 Kutxabank erakundearena, eta % 4,30 Euskadiko Kutxarena.

Kapital-gehikuntzarako ekarpenak dirutan egingo dira, guztira 13,8 milioi euro gehi 11,1 milioi euroko jaulkipen-saria, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak jarriko du oso-osorik, gainerako akziodunek lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egiten diotela jakinarazitakoan. Horiek horrela, sozietatearen kapitala 36,9 milioi eurokoa izango da.

Kapital-gehikuntzaren xedea da Etxebizitza Sailak ezarritako etxebizitza-politika burutzeko behar adina baliabide izatea sozietateak, eta hartara, 2010-2013 Etxebizitzaren Plan zuzentzaileak jarritako helburuak lortu ahal izatea, eta jakina, enpresaren finantza-egitura hobetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatearen akzioak erositakoan, Administrazio honek sozietatean duen partaidetza % 79,36koa izango da; Kutxabank SArena % 17,95, eta Euskadiko Kutxa, S. Coop. Elkartearena, % 2,69.

Sozietatearen kapital-gehikuntzak berekin ekarriko du sozietatearen estatutuak ere aldatzea.

Etxebizitza Sailaren iritziz, etxebizitzaren gaineko politika publikoek alokairua izan behar dute oinarri nagusi. Visesari egingo zaion kapital-ekarpen honekin babestutako etxebizitzaren eta, horien artean bereziki, alokairukoaren, aldeko apustu garbia eta sendoa egin nahi da, eta horrek, berriro ere, argi eta garbi uzten du Saila benetan engeiaturik dagoela 2010-2013 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean proposaturiko ekintza-lerroekin.

Finantza-merkatuaren egungo egoeraren ondorioz, sozietate asko beren kapital-egitura aldatzen ari dira, batez ere, higiezin inguruko enpresak. Horrela, bada, kapital-gehikuntza honekin Visesaren egitura ekonomikoa indartu nahi du Jaurlaritzak, eta etxebizitza babestuaren sustapenaren aldeko konpromisoa berretsi.

Berriki garatu diren politika ekonomikoek sozietate pribatuen eta publikoen zorpetze-maila txikiagoa izatea dute helburu, eta hori lortzeko zorpetze-tasa mugatu eta gutxitzea jo da. Eta politika horiek aplikatu beharreko zerga-araudian ere izan dute egina, sozietateen gaineko zergan kengarria den finantza-kostua mugatzea proposatu baita.

Horri, finantza-merkatuen egoera eta merkatu horiek higiezin sektorean eragiten duten penalizazioa

gehitzen badiogu, ezinbestekoa da egiturak sendotzea, norik bere funtsak erabiliz, eta inoren funtsekiko mendekotasuna pixkanaka-pixkanaka txikitzea.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Industria sailak Kultura sailari laga dizkio Zorrotzaurreko lursailak Teknikaren Museo eraikitzeko

Erabakia, Sociedad de Capital Desarrollo de Euskadi SOCADE, S.A. - Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietateari baimena ematen diona, euskal industria-ondarearen museoa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari ondasunak doan transmititzeko.

Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluan onartu zuen Zorrotzaurreko lursailak behin betiko lagatzea Kultura Sailari. Socade sozietate publikoa (Euskadiko Garapen Kapitaleko Sozietatea) da lursail horien jabea eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila Socade-ko bazkide da Arrisku Kapitaleko bere sozietatearen bidez.

Orain arte, Kultura Sailak erabili ditu lursail horiek industri ondareko ondasunak biltegitratzeko. Bilboko Udalak Zorrotzaurreko hiri-berroneratze proiektua onartu du, eta ez du aukerarik eman gune horretan inolako jarduerara ekonomikorik egiteko. Kultura Sailak lursail horiek eskuratu nahi dituzenez, Eusko Jaurlaritzak jabetza transmititzea erabaki du, goitik behera birgaitu ondoren lur horietan eraikitzeko Teknikaren Museoa eta erakusgai jartzeko euskal industriaren ondareko ondasunak.

Beste hiru ondasun higiezin

Gobernu Kontseiluak baita ere erabaki du zein izango den beste hiru ondasun higiezinen xedea. Lehenik eta behin, Divimek-en lursailak Estampaciones Metálicas Eugui, S.A.U-ri saldu dizkio, hantxe garatu dezan bere industri jardueraren zati bat.

Bigarrenez, enkante publikora aterako ditu Zumaian kokatutako Guascor, S. A. enpresaren eta Villabonako Eluar, S.A-ren ondasun higiezinak. Guascor enpresaren kasuan, azken zazpi urteotan ezein sustatzailek ez du interesik erakutsi lursail horiek hotel ekipamendurako erabiltzeko, nahiz eta Zumaia arau subsidiarioek xede hori baino ez dioten onartzen, eta lurak erabat hondaturik daude gaur egun. Villabonako lursailak industri erabilera izatetik bizitegi erabilera izatera igaro dira Plan Orokorraren arabera, hortaz, ezin daiteke industri garapenerako inolako jarduerarik egin.

Socade sozietateak industri birmoldaketaren sasoian erosi zituen lursail horiek denak. Gaur egun, ez dute inolako erabilerarik eta hondaturik daude gainera; hori dela eta, Socade sozietateak eta Eusko Jaurlaritzak konponbide bat bilatu diete beren baliabide eta ondasunak optimizatzeko eta, zenbait kasutan, hobekuntzak lortzeko lursailok kokaturik dauden udalerrietzat.

Jaurlaritzak onartu egin du 6 milioiko diru laguntza jasotzeko eskubidea kentzea Habidite

empresari

Erabakia, Habidite, S.A.-ri irekitako ez-betetze espedientea ebaztekoa, hain zuzen ere, hasierako inbertsioak egiteko eta inbertsio horiekin lotutako enplegua sortzeko programaren barruan emandako diru-laguntza dela-eta (proiektu estrategikoetan jasotakoa).

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak proposatuta, Jaurlaritzako Kontseiluak gaur erabaki du 6.006.240,74 euroko diru-laguntza jasotzeko eskubidea kentzea Habidite S. A. enpresari; izan ere, diru-laguntza jasotzeko, etxebizitzak seriean egiteko industria-proiektu bat atera behar zuen aurrera. Laguntza, ez itzulgarria bera, aurreko Jaurlaritzak -EAJkoak-onartu zuen 2008an, proiektu estrategikotzat jo zuelako; izan ere, 76,7 milioi euro eta 13,7 milioi euro inbertitzen ziren B+G gastuetan 2008ko urtarrila eta 2011ko abendua bitartean. Lau urte horietan, 697 lanpostu sortzea aurreikusten zuen proiektuak.

2011ko abenduan amaitu zen sei milioi euro baino zertxobait gehiagoko diru-laguntza -enpresak ez zuen jaso diru-kopuru hori- justifikatzeko epea. Hori dela eta, joan den maiatzean espedientea ireki zen, diru-laguntza jasotzeko eskubidea ez betetzearen. Orain, berriz, espedientea irmoki ebatzi da, bete ez direlako "emandako diru-laguntza lortzeko jarritako helburuak, inbertsioa eta lanpostuak".

Habiditeren proiektuak aurreikusten zuen, seriean produzitzeko prozesu baten bidez, hainbat elementu fabrikatzea industria-planta batean etxebizitza-bloke bat sortzeko. Elementuok amaitu, eta etxebizitza-blokea dagoen tokira eramaten dira, eraikina behin betiko muntatzeko.

Eusko Jaurlaritzak 150.000tik gora euro jarriko ditu Bernedoko instalakuntza berria egiketo

Erabakia, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. enpresari zuzeneko diru-laguntza ematekoa. Helburua: Marañón (Nafarroa) eta Bernedoko Industrialdearen (Araba) artean 13,2 kV-ko aireko eta lurrazpiko linea elektrikoa jartzea.

Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluan onartu du Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Iberdrola enpresak Bernedo (Araba) argindarrez hornitzeko sinatu duten Lankidetzeta Hitzarmena.

Hltzarmenaren zenbatekoa 150.850 eurokoa da, egin beharreko lanen %50 hain zuzen.

Bernedok eskualdeko lehen landa industrialdea jarri du martxan, Arabako Mendialdean egingo den ekintzarik estrategikoenetako bat. Hala ere, proiektua martxan jartzeak agerian utzi du zein eskasa den inguru hartako argindararen hornikuntza, sarritan etenak izaten baitira, eta hori oztopo handia da eskualdeko jardueraren hazkunderako. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak erabaki du diruz lagunduko dituela linea bat instalatzeko lanak, inguruko operatzaile bakarra den Iberdrola enpresak estaldura handiagoa eskaini dezan aireko linea berri horren bidez.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Energi eta Meatzaritza Zuzendaritzak sustatutako programaren beste emaitza bat da diru-laguntza hau. Programa horrek linea elektrikoak eta gas instalakuntzak garatzeko laguntzak ematen ditu merkatuko legeek uzten ez duten lekuetan. Linea elektrikoak hornituko duen industrialdearen berezitasuna dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ere parte hartu du hitzarmenean, eskualdeko landa garapena bideratuko duelako.

Eusko Jaurlaritzak Jarraipen Batzorde Misto bat sortu du Hitzarmenean parte hartzen duten alderdi guztiekin (bi Sailak eta Iberdrola), proiektuaren garapena eta exekuzioa hurbiletik jarraitzeko eta koordinatzeko.

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Gobernuak 1,5 milioi euro baliatuko ditu gizarte ekonomia sustatzeko

Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du, gaur, 1,5 milioi euro baliatzea gizarte-ekonomia sustatzeko, lau laguntza-lerroen bitartez.

Lehen lerroa, 625.000 eurokoa, gizarte-ekonomiako enpresetako bazkideentzat zenbait prestakuntza-ikastaro finantzatzera zuzenduko da. Horien bitartez, 3.000 pertsonak inguruk aukera izango dute Gizarte Ekonomia eta Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruzko prestakuntza espezifikoko, ikerketa eta zabalkundeko ikastaroak egiteko (EAEko gizarte-ekonomiako enpresetako bazkideak eta langileak arituko dira ikasle).

Mota horretako ikastaroak eraginkortasun handi samarraz egiten ari dira 1989az geroztik. Horrez gain, beste aldi batzuetan bezala, laguntzei esker, zenbait lan, txosten eta eskuliburu argitaratu ahalko dira, zeinak, kasu batzuetan, gizarte-ekonomiako enpresa-proiektu berrietan gauzatuko baitira. Bigarren laguntza-lerroa 640.000 eurokoa izango da, eta sektoreko enpresen eta erakundeen elkarre-egitura sendotzera zuzenduko.

Laguntzok eraginkortasunez lagundu dute, 1995az geroztik, hau guztia ziurtatzen gizarte-ekonomiako erakundeei eta beraiek solaskide gisa baliatzen dituzten antolakundeei dagokienez: kanpoko harremanetan eragiteko gaitasuna izan dezaten; sektorea eraginkortasunez ordezkatu dezaten; bazkideen intereseko zerbitzuak antola ditzaten; eta, oro har, bazkideen interes zilegiak hobeto defendatzen laguntzen duten ekintzak sustatu ditzaten.

Hirugarren laguntza-lerroa, berriz, enpresei ematen zaien laguntza teknikoarekin lotuta dago, eta 150.000 euroz hornituta. Laguntza horien helburua da, hain zuzen, Gizarte Ekonomiako enpresetan kudeaketa tresnen ezarpena sustatzea, haien administrazioa eta zuzendaritza lehiatzeko ahalmena, finean hobetzeko.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du gizarte-ekonomiako enpresetako bazkideak sartzeko

laguntza-programari eustea, 100.000 euroko horniduraz. Urteetan zehar programa hori oso eraginkorra izan da zenbait kolektibotako kide gizarte-ekonomiako enpresetan sartzeko, hala nola: langabetuak, ezinduak eta nekazaritza-, abelzaintza-, basogintza- ustiatagietako zein ustiategi mistoetako titularrak .

Halaber, iaz, besteren konturako langileak zirela enpresa horietan sartu ziren langile bazkide guztiak gehitu zitzaizkien kolektibo horiei, eta emaitza on samarrak lortu ziren.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Nekazari ekoizleen elkarte eta horien batasunerako 300.000 euroko dirulaguntza deia egin da

Gobernu Batzordeak bide eman dio 2012. urteko Euskadiko Nekazari Ekoizleen Elkarte eta horien Batasun prozesuetarako 300.000 euroko dirulaguntzaren deialdiari.

Pilar Unzalu sailburuak aurkeztutako aginduaren helburua, Nekazaritza ekoizleen Elkarteak eta horien arteko Batasun izaera lortu duten erakundeen ekoizpen azpiegiturak eta komertzialak hobetzea da.

Ekoizleen elkarten bitartez euren produktuen komertzializazioa hobetzeko laguntza ekonomikoak ematea da helburua. Dirulaguntza deialdi hori, Euskal autonomi Erkidegoko Nekazal Ekoizleen elkarte eta horien arteko batasunen inguruko urtarrilaren 20ko 13/2004 Erret Dekretuan aurreikusten da.

Jardueren ingurumen kudeaketa elektroniko zerbitzuaren erabilera arautzen duen Dekretua onartu da

Dekretua, ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena

Gobernu Kontseiluak onartu du gaurko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenean eragina duten jarduera erregistroaren eta ingurumen kudeaketa elektroniko zerbitzua sortzea eta arautzen dituen Dekretua. IKS-eeM sistemak, dagoeneko martxan dena, informazio hori guztia bateratuko du.

Gobernu Batzordeak beraz, bide eman dio prozesuak arintzeko IKSeeM sistemaren bitartez ingurumen administrazio prozesuen tramitazio telematikoa arautzen duen Dekretuari.

Sistema horri esker, erakundeengan eta herritarrengan, oro har, administrazio prozesu erraz baterako

kudeaketa telematikorako erreminta bat jarri da eskuragarri.

Dekretuak, informazioaren aldikako transmisiorako dokumentu bakarrak izatea -Ingurumen deklaraziorako eskaerak (e-DMA S), eta Ingurumen Deklarazio jakinarazpena (e-DMA N)-, eta modu erraz batean, prozesu horietan aritzen diren guztiek ingurumen araudiak eskatzen dituen eta derrigorrezko diren ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu ahal izatea.

Erregistro horretan PRTR instalazioak (isurketa eta kutsagaien transferentzia), IPPC-ak (Ingurumen Baimen Bateratua); klima aldaketari eta airearen kalitateari dagozkionak; hondakinenak; lur kutsatuenak; edo EMAS eta ekoetiketak, besteak beste biltzen dira.

Dekretu hori Administrazio Elektronikoaren eta Berrikuntza Publikoaren Planak bultzatu nahi duen zerbitzu publiko digitalen ekimenean txertatzen da, besteak beste, paperaren erabilpena gutxitzeko teletramitazio elektronikoaren zabalkundea egiteagatik eta hiritarrei, enpresei eta erakundeei administrazio kudeaketa efizienteago bat egiteko prozesuak errazteagatik.

Joan den 2009. urtean IKS-eeM Sistema ezarri zenetik 900tik 11.000 erabiltzerainoko aurrerapausoa egin du. Hondakin arriskutsuen kudeaketan berriz, % 2ko dokumentu elektronikoetatik % 90ra igaro da eta, guztira, 99.000 dokumentu elkartrukatu dira.

Administrazio prozesuen erraztearen aurrezpena, alegia, papera, garraioa, telefono kontsultak kudeaketa sistema ezberdinak ezartzea eta abar, 2.269.164 eurokoa izan da.

KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzak 10 milioi euroko diru-laguntza emango die euskaltegi publikoei

Erabakia, 5.000.000 euro baino gehiagoko gastua baimentzekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) udalen edo udal-erakundeen menpeko euskaltegiei dirulaguntzak eman diezaien.

Gaurko bileran, Gobernu Kontseiluak HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpena onartu du; haren bitartez, udalen edo udal-erakundeen menpeko euskaltegiei, udal-titularitateko euskaltegi publikoei, 2012/2013 ikasturteko diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzen dira. Diru-laguntza horietarako 10.369.254 euro esleitu dira.

Ebazpen horrek arautzen du, udal-titularitateko euskaltegi publikoek emandako euskara-ikastaroak finantzatzeko laguntzen erregimena, 2012-2013 ikasturtean zehar (2012ko urria-abendua bitarte eta 2012ko urtarrila-iraila bitarte). Laguntza horiek finantzatuko dira xede horretarako HABEren Aurrekontuetan esleitura dauden kopuruen kontura, hau da, 10.369.254 euro.

Udal-titularitateko euskaltegi publikoak izango dira deitzen diren laguntzen erakunde onuradunak, eta era horretan HABEren Erregistroan erregistratuta daudenak. Nolanahi ere, deialdi horren diru-laguntzak

jasotzeko HABEren zuzendari nagusiak 2005eko uztailaren 27an emandako Ebazpenean agindutakoa bete beharko dute. Ebazpen horretan ezartzen da, euskaltegi publikoek, euskaltegi pribatu homologatuek, autoikaskuntzako zentro homologatuek eta Euskal Etxeek bete beharreko oinarritzko baldintzen erregimen orokorra HABEk deitutako diru-laguntzak jaso ahal izateko.

HABEk euskaltegi bakoitzari beharrezko irakasleak izateko finantzaketa emango dio 2012/2013 ikasturtean, Ebazpen horren arabera antolatutako ikastaroei erantzuna emateko, eta baita horretarako behar diren zuzendaritzako, idazkaritza akademikoko eta bulegoko langileak ere. Benetan hasitako presentziazko taldeetan eta autoikaskuntzako matrikuletan oinarrituz egindako eskola-aurreikuspenen arabera erabakiko da zenbat langile behar diren.

Eskaerak HABEren zuzendari nagusiari bidali beharko zaizkio deialdi hau EHAAan argitaratzen den egunetik 2012ko azaroaren 5a bitarte.